**2017ko UZTAILAREN 12ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 12 DE JULIO DE 2017

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
**IXONE TELLECHEA URANGA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO (lana**/trabajo**), AITOR ELEXPURU EGAÑA (oporrak**/vacaciones**), JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS (oporrak**/vacaciones**), RAQUEL QUIROGA TAPIA (lana**/trabajo**).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**
**Eguna: 2017-07-12**
**Ordua: 19:40**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 12-07-2017
Hora: 19:40
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

*Alkateak galdetzen du ea akta onartzen duten eta German Castillo zinegotziak dio ezetz, bere taldea ez dagoela ados aktarekin eta irakurriko duela idatzi bat, gero aktan jartzeko.*

*El Alcalde pregunta si se aprueba el acta y el concejal Germán Castillo manifiesta que no, su grupo no está de acuerdo con el acta y que va a leer un escrito para que luego se transcriba en el acta.*

*Idatzia irakurri du eta hauxe da testua:*

*Lee el escrito el cual se transcribe seguidamente:*

*"Desde el grupo Herrirako queremos matizar nuestra discrepancia con la moción presentada de urgencia por el grupo municipal de Bildu sobre la presencia de la Guardia Civil en las fiestas de Alzate.*

*Si bien nos pareció inusual la presencia de la patrulla entre la gente que estaba viendo el concierto con total tranquilidad (circunstancia esta sobre la que hemos hablado en la reunión que hemos mantenido con los responsables de la Guardia Civil del puesto de Bera para interesarnos sobre el por qué de dicha presencia, reunión que creemos que debería haber mantenido el Alcalde como máximo representante del pueblo de Bera previamente a presentar la moción). No estamos de acuerdo en solicitar el repliegue total de los cuerpos policiales porque creemos que sí) es necesaria presencia policial. No obstante estamos a favor de adecuar el ratio al número de habitantes.*

*También queremos que conste nuestro malestar porque no se proporcionó información en castellano (cosa que viene siendo habitual en estas mociones de urgencia) sabiendo que hay miembros de la Corporación que no hablan Euskera.*

*Nos gustaría recordar a nuestra queridísima Secretaria Dª Pilar Chueca que si bien consideramos la capacidad de síntesis como una virtud, en la redacción del acta (no tenemos claro si por esa capacidad de síntesis o por desidia) ha resumido la intervención de nuestro compañero German Castillo a una frase obviando por qué manifestó no sentirse seguro y para que conste manifiesta que no se sintió seguro porque se pregunta qué hubiera pasado si algún descerebrado de este o de otro pueblo con la valentía que proporciona el alcohol (recordemos que era de madrugada) y el amparo que proporciona la multitud hubiera agredido a alguno de los agentes que atravesaban el concierto en ese momento.*

*Para que conste donde proceda."* (Sin fecha ni firma)

***Horren ondotik honako adierazpenak egin dira:***

***Juan Losak zera dio:***
***UPNk ere aktaren aurka dago ezin delako 2 lerrotan laburtu debate osoa; ulergarria da idazkariak ezin duela dena hartu.***
***UPN abstenitu zen mozioan sortua zen egoerarengatik.***

***Josu Iratzoki Alkateak:***
***Gertatukoaren ondotik, Guardia Zibil bati galdetu zion ea zer gertatu zen eta erran ziola ez zekiela, kontrolen bat bazela eta sarjentuarekin hitz egingo zutela.***
***Guardia Zibilarena seguritatearengatik izan bazen Altzaten inseguritatea egon zen, kontrola nahi bazuten egin kanpoan egitean ahal zuten ez bestaren erdian.***

***Mikel Lertxundi:***

*Tras ello, se realizan las siguientes intervenciones:*

*Juan Losa:*
*UPN, también, está en contra del acta porque no es correcto reunirlo en dos renglones; es comprensible que la Secretaria no pueda recoger todo.*
*UPN optó por la abstención ante la situación que se había creado.*

*El Alcalde Josu Iratzoki:*
*Después del suceso, le preguntó a la Guardia Civil que había pasado y le contestó que no sabía, que había algún control y que le preguntaría al sargento.*
*Si lo de La Guardia Civil fue por seguridad en Altzate hubo inseguridad, si querían poner un control lo podían hacer fuera no en el centro de la fiesta.*

*Mikel Lertxundi:*

***Mozioa onartu zutenean denak ados ziren ez zela momentua Guardia Zibilak agertzeko.***

*Cuando se aprobó la moción todos estaban de acuerdo en que no era el momento de que apareciera la Guardia Civil.*

***Idazkariak hitza eskatu dio Alkateari eta akteen edukiari buruz ROF delakoaren 109. artikuluak diona irakurri du, bereziki, f) atala non dioen: "opiniones sintentizadas de los grupos o miembros de la Corporación que hubiesen intervenido en las deliberaciones".***
***Baita ere azaldu du:***
***Ez du komentatu behar berari buruz irakurritako idatzian jarri duena.***
***Akta ez da bileren egunkaria, hori ez dago Toki Administrazioetan, Parlamentuetan baizik eta nahi badute den dena agertu bilerak grabatu behar dira eta gero transkribatu, nahiz eta hori, funtsean, akta ez izan "opiniones sintentizadas" baitio aipatu artikuluak.***
***Horrez gain, artikulu horri jarraikiz, aktak luzatzea idazkariaren funtzioa da.***

*La Secretaria pide la palabra al Alcalde y lee el artículo 109 del ROF respecto al contenido de las actas, especialmente, su apartado f) que habla de "opiniones sintetizadas de los grupos o miembros de la Corporación que hubiesen intervenido en las deliberaciones".*
*Igualmente explica lo siguiente:*
*No va a entrar a comentar lo que aparece sobre ella en el escrito leído.*
*El acta no es un diario de sesiones, éste no existe en el ámbito de las Administraciones Locales sino en el ámbito parlamentario y si quieren que aparezca todo lo que dicen deberían grabar las sesiones y, luego, realizar una transcripción aunque, esto, no sería básicamente un acta ya que el citado artículo habla de "opiniones sintetizadas".*
*Además de lo anterior, y a tenor del citado artículo añade que redactar las actas es una función que corresponde a Secretaría.*

***Jose M. Gorriak:***
***Bi aldeetatik aparte gelditu nahi du, ez dator bat bere taldearen idatziarekin lehengo bozketarekin baino.***

*José M. Gorria:*
*El queda al margen de las dos partes, no está de acuerdo con el escrito de su grupo sino con la votación anterior.*

***Josu Iratzoki Alkateak:***
***Onartu zuten mozio bat eta gero komunikabideetan nahasi dute gaia eta orain nahi dute aldatu.***

*El Alcalde Josu Iratzoki:*
*Se aprobó una moción y luego los medios de comunicación han revuelto el asunto y, ahora, quieren cambiar.*

***Adierazpen ondotik, bozketa egin dute, honako emaitzarekin:***
***Akta onartzearen alde: 5 boto (4 EH Bildu eta 1 Herrirako.)***
***Aurka: 2 boto (1 Herrirako, 1 UPN).***
***Abstentzioak: 0.***

*Tras las intervenciones, se lleva a cabo la votación con el siguiente resultado:*
*A favor de aprobar el acta: 5 votos ((4EH Bildu y 1 Herrirako)*
*En contra: 2 votos (1 Herrirako, 1 UPN)*
*Abstenciones: 0:*

**Beraz, 2017.eko ekainaren 14an egindako bileraren akta ikusirik, ONARTU DUTE.**

Por lo que, vista el acta de la sesión celebrada el día 14 de junio de 2017, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- UDAL TITULARITATEAREN LURZATIA SORTZEKO (LEGARBIDEKO LIXUTEGIA) 3. POLIGONOKO 309. ETA 409. LURZATIEN MUGAK ETA AZALERAK KATASTROAN ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA.**

***Idazkariak espedientea azaldu du eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

**Azaroaren 9ko 220/2016 Alkatearen Ebazpenaren bidez Udalak ebatzi zuen 3. poligonoko 309. eta 409. lurzatien mugen eta azaleren aldaketa egiteko prozedura hastea eta udal titularitatearen lurzati berri bat sortzea non Legarbideko udal lixutegia kokatuko den.**

**Aldi berean, egin nahi ziren aldaketak ukitutako 3. poligonoko 309. eta 409. lurzatien jabetza titulua hilabeteko epean ekartzea ukitutako titularrei eskatzea ere ebatzi zuen.**

**Emandako epean, interesatuak, -------------------------k, 284/2014ko Alkatearen Ebazpenaren bidez helburu berean irekitako espedientean sartutako dokumentazioa espediente honetan sartzea eskatu zuen.**

**Otsailaren 6ko 15/2017 Alkatearen Ebazpenaren bidez Berako katastroko 3. poligonoko 309. eta 409. lurzatien mugak eta azalerak katastroan aldatzeko espedientea jendaurrean zegoela eta 15 egunetako entzunaldi tramitea hasten zela jakinarazi zion ukitutako titularrari.**

**Epe honetan, 2017ko martxoaren 2an ukitutakoak alegazio-idatzia aurkeztu zuen (Sarrera Erregistroa 481/2017-03-02).**

**Ikusirik, alegazio-idatzi honi buruz udal katastroko teknikoak eginiko txostena, 2017ko maiatzaren 24koa (Sarrera Erregistroa 1253/2017-05-25).**

2.- APROBACIÓN EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE LAS LINDES Y SUPERFICIES DE LAS PARCELAS 309 Y 409 DEL POLIGONO 3 PARA GENERAR PARCELA DE TITULARIDAD MUNICIPAL (LAVADERO DE LEGARBIDEA)

*La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Por Resolución de Alcaldía 220/2016, de 9 de noviembre, se inició el expediente para modificar las lindes y superficies de las parcelas 309 y 409 del polígono 3 y generar una nueva parcela de titularidad municipal en la que se enclavaría el lavadero municipal de Legarbidea.

Al mismo tiempo se recabó de los titulares afectados la aportación, en el plazo de un mes, de título de propiedad correspondiente a las parcelas 309 y 409 del polígono 3, afectadas por la modificación catastral pretendida.

En el plazo concedido el interesado, -------------------------, solicitó la incorporación a este expediente de la documentación aportada en su momento al expediente iniciado con el mismo objeto por Resolución de Alcaldía 284/2014.

Por Resolución de Alcaldía 15/2017, de 6 de febrero, se notificó al titular afectado el inicio de la exposición pública del expediente de modificación de lindes y superficies de las parcelas 309 y 409 del polígono 3 y del trámite de audiencia de 15 días.

En el citado plazo, el 2 de marzo de 2017, el afectado presentó escrito de alegaciones (Registro de Entrada 481/2017-03-02).

Visto informe del técnico municipal de catastro, de fecha 24 de mayo de 2017, emitido sobre el citado escrito de alegaciones (Registro de Entrada 1253/2017-05-25).

**Ikusirik, alegazio-idatzi honi buruz udal abokatuak eginiko txostena, 2017ko maiatzaren 29koa (Sarrera Erregistroa 1285/2017-05-29).**

**Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 110. eta 113. artikuluei zein Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 28. eta 32.6 artikuluei jarraikiz.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) "Legarbideko lixutegia" okupatutako zonaldearen irudikapen grafikoan eta katastroko titularitatean zalantzarik gabe akats dagoela adieraztea zeren lixutegi hori 1924. urtetik Udal inbentarioan dagoen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 113. artikuluak dioen moduan, baina Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasunaren Erregistroan ez dago ez grafikoki ez alfanumerikoki.**

**2) ------------------------- aurkeztutako alegazioak ezestea lehen adierazitako bai katastroko teknikoak bai udal abokatuak eginiko txostenetan agertzen diren arrazoiengatik, horien kopiak erabaki honekin batera bidaliko zaio.**

**3) 3. poligonoko 309. eta 409. lurzatien mugen eta azaleraren mugaketa grafikoa aldatzeko proposamena egitea eta Legarbideko Lixutegia izeneko eraikina kokatzeko udal titularitatea duen lurzati berria sortzea.**

**4) Lehen aipatu eta proposatutako katastroko mugaketan islatu den lurzatia, espedientean dagoena, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskriba dezatela premiatzea. Horretarako ondasunen titulartasun**

Visto informe del abogado municipal, de fecha 29 de mayo de 2017, emitido sobre el citado escrito de alegaciones (Registro de Entrada 1285/2017-05-29).

De conformidad con los artículos 110 y 113 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y los artículos 28 y 32.6 de la Ley Foral 12/2006 del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra.

SE ACUERDA:

1) Declarar convicción indubitada de la existencia de un error en la representación gráfica y titularidad catastral de la zona ocupada por el "Lavadero de Legarbidea", ya que dicho lavadero está inventariado por el Ayuntamiento de Bera desde 1924 conforme a lo indicado en el artículo 113 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra, no figurando ni gráfica ni alfanuméricamente en el Registro de la Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra.

2) Desestimar las alegaciones presentadas por ------------------------- según las razones aducidas en los informes del técnico de catastro y abogado municipal, antes reseñados, y cuyas copias se acompañarán a este acuerdo.

3) Realizar propuesta de modificación de la delimitación gráfica de lindes y superficie de las parcelas 309 y 409 del polígono 3 del catastro municipal de Bera y generar una nueva parcela de titularidad municipal en la que enclavar la construcción conocida como Lavadero de Legarbidea.

4) Instar la inscripción en el Registro de la Riqueza Territorial de la parcela reflejada en la propuesta de delimitación catastral antes citada y que figura en el expediente, acompañando de certificación de titularidad pública de la misma.

**publikoa egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.**

**5) Aipatu Erregistroan alta emateko behar den eta egiaztatzen den dokumentazioa bidaltzea Lurralde Aberastasunaren Erregistrora.**

**6) Erabaki hau lehen aipatu diren txostenekin batera interesatuari jakinaraztea.**

5) Remitir al Registro de Riqueza Territorial la documentación justificativa de la alteración para que se proceda a la incorporación de lo pretendido en dicho Registro.

6) Notificar este acuerdo al interesado junto con los informes antes indicados.

**3.- UE1eko EXEKUZIO UNITATEA ZEHAZTEKO ALDATZEKO ESPEDIENTEA: (3. P, 274. L) BEHIN BETIKO ONESTEA:--------------------.**

3.- APROBACIÓN DEFINITIVA EXPEDIENTE MODIFICACIÓN DELIMITACIÓN UE1 (P. 3, p. 274):---------------------

***Idazkariak espedientea azaldu eta gero, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:***

*Tras explicar la Secretaria el expediente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, UE1eko exekuzio unitatea (3. poligonoko 274. lur-zatia) zehazteko aldatzeko espedientea,----------------------k sustatua.- Dokumentazioa: UE1eko exekuzio unitatea zehazteko aldatzeko proiektua, --------------------------------arkitektoak egina 2017ko martxokoa.**

Visto expediente de modificación de la delimitación de la Unidad de Ejecución UE1 (parcela 274 del polígono 3), promovido por----------------------.

Documentación: Proyecto de modificación de la delimitación de la Unidad de Ejecución UE1 redactado por el arquitecto-----------------------------------de fecha marzo de 2017.

**Ikusirik, Nasuvinsak eginiko txostenak, 2017ko urtarrilaren 17 eta apirilaren 26koa eta Idazkaritzak eginiko txostena, 2017ko apirilaren 27koa.**

Vistos informes realizados por Nasuvinsa de 17 de enero y 26 de abril de 2017 y de Secretaría de 27 de abril de 2017.

**2017ko maiatzaren 4an Tokiko Gobernu Batzordeak exekuzio unitatea (3. poligonoko 274. lur-zatia) zehazteko aldatze honi hasierako onespena eman zion.**

En fecha 4 de mayo la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente esta modificación de la delimitación de la Unidad de Ejecución UE1 (parcela 274 del polígono 3).

**Izanik, jendaurreko epean ez dela alegaziorik aurkeztu.**

Siendo que no se ha presentado ninguna alegación en el plazo de exposición pública.

**Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/2002 Foru Legearen 143., 62., 74. eta 76. artikuluekin bat etorriz.**

De acuerdo con lo establecido en los artículos 143, 62, 74 y 76 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) ----------------------k sustatutako UE1eko exekuzio unitatea (3. poligonoko 274. lurzatia) zehazteko aldatzea, behin betikoz onestea.**

1) Aprobar definitivamente la modificación de la delimitación de la Unidad de Ejecución UE1 (parcela 274 del polígono 3), promovida por-----------------------.

**2) Behin-betiko onespen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva.

**3) Erabaki hau nahiz onartutako UE1eko exekuzio unitatea (3. poligonoko 274. lurzatia) zehazteko aldatze honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Lurralde eta Paisaiako Zerbitzuari bidaltzea.**

3) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación de la delimitación de la Unidad de Ejecución UE1 (parcela 274 del polígono 3) aprobada e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra.

**4) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

4) Notificar este acuerdo a la interesada.

**4.- FORUZAINGOAREN PLAN ZUZENTZAILARI BURUZKO MOZIOA.**

4.- MOCION SOBRE EL PLAN DIRECTOR DE LA POLICIA FORAL.

***Alkateak mozioa irakurri du eta, ondoren, adierazpen hauek izan dira:***

*El Alcalde lee la moción y se producen las siguientes manifestaciones:*

***German Castillok galdetu dio Alkateari ea nork aukeztu duen mozioa eta honek EH Bilduk erantzun dio. Orduan, German Castillok adierazi du ez duela ulertzen EH Bildu Gobernuan egon da mozioa aurkeztea.***

*Germán Castillo le pregunta al Alcalde a ver quién ha presentado la moción y éste le responde que Bildu. Entonces, Germán Castillo manifiesta que no entiende que la presente EH Bildu estando en el Gobierno.*

***Juan Losak:***
***Kontseilariak ez du sindukatuen babesa, Foruzaintzak ezin du denetara ailegatu eta Guardia Zibilak Foruzaintza ailegatzen ez dena betetzen du. Kontseilariak arazo bat du eta Udalei pasatu nahi die.***

*Juan Losa:*
*La Consejera no tiene el apoyo de los sindicatos, la Policía Foral no puede llegar a todo y la Guardia Civil cubre lo que la Policía Foral no llega. La Consejera tiene un problema y lo quiere pasar a los Ayuntamientos.*

***Josu Iratzoki Alkateak:***
***Hemen, Europan baino poliziaren kopurua bikoiztua dago, gutxiago eskatzen dute eta transferentzia gehiago eskatzea.***
***German Castillok ulertzen ez duenari Uda-***

*El Alcalde Josu Iratzoki:*
*Aquí hay el doble de policías que en Europa, solicitan menos y pedir más transferencias.*
*Sobre lo que no entiende Germán Castillo le indica que se trata de manifestar la opinión*

***laren iritzia ematea dela adierazi dio.***

*del Ayuntamiento.*

***Bozketa egin dute eta, hauxe izan da emaitza:***
***Aldeko botoak: 4 (EH Bildu).***
***Aurkako botoak: 1 (UPN).***
***Abstentzioak: 2 (Herrirako).***

*Se lleva a cabo la votación con el siguiente resultado:*
*Votos a favor: 4 (EH Bildu).*
*Votos en contra: 1 (UPN).*
*Abstenciones: 2 (Herrirako).*

***Beraz, mozioa onartu dute honako testua izanik:***

*Por lo que la moción se aprueba, siendo el texto el siguiente:*

**Herritarrei Foruzaingoaren 2016-2020ko Plan Zuzentzailean parte hartzeko aukera ematea onartu zuen Nafarroako Gobernuak 2017ko apirilaren 26an.**

El Gobierno de Navarra ha aprobado el 26 de abril de 2017 someter el Plan Director de la Policía Foral 2016-2020 a un proceso de participación pública.

**Plan Zuzentzailea –Gobernuaren Atarian jasota dagoenez– Foruzaingoaren erreferentziako tresna estrategikoa da, etorkizuna aurreikusteko, aldaketetara egokitzeko eta baliabide nahiz instalazioak proposatutako helburuen arabera moldatzeko aukera ematen baitio, bat-batekosunak saihestearren. Hori guztia egoera politiko eta sozial berriaren testuinguruan; izan ere, aurreko plan zuzentzaileak gaindituta daude eta Foruzaingoaren eginkizunak zehaztu egin behar dira, Nafarroako polizia-eredua optimizatzearren eta eredu horren arabera baliabideak, bitartekoak eta aurrekontua antolatu eta esleitzearren, kudeaketa zorrotzagoa bermatzeko betiere jarduerak koordinatuta eta herritarren parte-hartzea bermatuta.**

El Plan Director –según se indica en el Portal del Gobierno- constituye la herramienta estratégica de referencia para la Policía Foral que permite prever el futuro, adaptarse al cambio y adecuar medios e instalaciones a los objetivos propuestos evitando la improvisación. Todo ello, en el contexto de un nuevo escenario político y social, habiendo sido superados precedentes planes directores y ante la necesidad de definir las funciones de la Policía Foral para optimizar el modelo policial navarro que ordene y asigne recursos, medios y presupuesto, garantice una gestión más rigurosa que coordine actividades y que garantice la participación ciudadana.

**Ezin dugu ahantzi Nafarroan egoera berezia gertatzen dela poliziari dagokionez, Europa osoan parekorik gabe. Batik bat eta soil-soilik bi arrazoirengatik: lehena, segurtasun publikoari atxikitako polizia-eginkizunak baliatzean bikoiztasun eta alboratze nabarmenak gertatzen direlako, eginkizun horiek hainbat polizia-erakundek partekatzen baitituzte egikaritze-maila eta lurralde berean; eta, bigarrena, polizia-baliabideen ratioa biziki handia delako 639.000 biztanle inguruko Komunitatea izanik, Estatuko polizia-ratioa nahiz Europar Batasuneko ratiorik handiena alde**

No se puede olvidar que en Navarra se da una situación única en toda Europa en relación a la policía. Única, principalmente, por dos motivos, en primer lugar, por una serie evidente de duplicidades y yuxtaposiciones en el ejercicio de funciones policiales inherentes a la seguridad pública que son compartidas al mismo nivel de ejecución y en el mismo territorio por diferentes instituciones policiales, y en segundo_lugar, también es única por el elevadísimo ratio de recursos policiales en una Comunidad de unos 639.000 habitantes, que sobrepasa ampliamente el ratio policial del Estado, el más alto de la Unión Europea con

**handiaz gaindituta eta Europar Batasuneko herrialdeetako polizia-ratioak bikoiztuta eta, zenbait kasutan, hirukoiztuta. Nafarroan, polizia-ratioa honako hau da: 7 polizia /1000 biztanle, eta Espainiako Estatuan, aldiz, 4,8 eta eurogunean 3,6.**

diferencia, duplicando y en algunos casos triplicando ratios policiales de países de la Unión Europea. En Navarra hay un ratio policial 7 policías por cada /1000 habitantes, cuando en el Estado Español es de 4,8 y en la zona euro 3,6.

**Orain arte, eta batik bat 1979. urteaz geroztik, Nafarroak ez du bere Polizia, Foruzaingoa, erabat garatu, baina garapen hori bultzatu eta gauzatzen ahal zen Foru Araubidean sakonduz gero –autogobernuaren tresna historikoa den aldetik– guztiz eta Polizia integraltzat legozkiokeen eskumenak bere gain hartuta, Ertzaintzaren eta Mossos de Esquadraren kasuan bezalaxe; hartara, nafar guztion erreferentziako polizia izango zen.**

Hasta ahora, y especialmente desde el año 1.979 Navarra no ha desarrollado en totalidad su propia Policía, la Policía Foral, desarrollo que se podría haber impulsado y materializado en base a la profundización del Régimen Foral como herramienta histórica de autogobierno, en plenitud y asunción de competencias que como Policía integral le corresponderían, al igual que la Ertzaintza y los Mossos de Esquadra, convirtiéndola en la policía de referencia para todos los navarros y navarras.

**1979. urtean, Gladys del Estal Tuteran hil ostean, ia ehun udal bildu ziren Tafallan eta “soilik foru-erakundeen mendeko izango diren ordena-indar berriak” sortzeko eskumenak eskatu zituzten, “eta ordezte-prozesu hori gauzatu bitartean, baita Ordena Publikoaren Indarren presentzia ahalik eta gehien murrizteko” eskumenak ere.**

En 1979, tras la muerte de Gladys del Estal en Tudela, se reunieron en Tafalla casi un centenar de ayuntamientos y exigieron competencias para “dar paso a unas nuevas fuerzas de orden dependientes exclusivamente de las instituciones forales y reducir al máximo, mientras se produce esa sustitución, la presencia de las Fuerzas de Orden Público”.

**Nafarroako Parlamentuak Foruzaingo integralaren aldeko jarrera agertu zuen 1994ko ekainean, gure lurraldeko polizia-eginkizun guztiak garatzeko. Horrela, bada, urte hartako ekainaren 28ko saioan Foruzaingoaren Antolamenduari eta Eginkizunei buruzko Plana onetsi behar zen, lehen Plan Zuzentzailea; saio horretan, honako hau erabaki zen:**

El Parlamento de Navarra ya se posicionó en junio de 1994 por una Policía Foral integral que desarrollara el conjunto de las funciones policiales en nuestro territorio. Así en sesión de 28 de junio de ese año al aprobar el Plan de Organización y Funciones de la Policía Foral, el primer Plan Director, se acordó:

**“1. Nafarroako Foruzaingoak Nafarroako Polizia izan behar du, eta bere izaeran, eskumenetan, eginkizunetan, banaketa geografikoan eta giza- eta gauza-baliabideetan poliziaren arloko zerbitzu oso eta erabatekoaren zerbitzu gisa eratu behar da.**

“1.ª La Policía Foral de Navarra se configurará como Policía de Navarra, **asumiendo en su naturaleza**, competencia, funciones, distribución geográfica y dotación de medios personales y materiales **la condición de servicio completo e íntegro en materia policial**.

**2. Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko (LORAFNA) 51. artikuluak aitortzen dituen eskumenen arabera eta Konstituzioaren (...) lehen xedapen gehigarriarekin duten lotura eta guzti, Nafarroako Gobernuak sustatu behar du Foruzaingoa Nafarroako polizia integral gisa era dadin, eta horretarako behar diren zuzemenak eginen ditu Estatuko Administrazioarekin dagokion negoziazioa izan dadin; negoziazio horretan aztertuko dira, batetik Nafarroak poliziaren eskumenak bereganatzea, eta bestetik Nafarroarentzat horrek dakarren zama aitortzea, kostuak Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoaren ondoriozko kupoari egotziz. Hori guztia zerbitzuen transferentzien prozesuaren eta Transferentzia Batzarraren eginkizunen barnean.**

2.ª **El Gobierno de Navarra**, de conformidad con las competencias que reconoce el artículo 51 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra (LORAFNA)(…) y Disposición Adicional Primera de la Constitución, **promoverá la configuración de la Policía Foral como policía integral de Navarra** y con este sentido realizará las gestiones necesarias para efectuar la negociación correspondiente con la Administración del Estado que comprenderán tanto el ejercicio de competencias policiales, como el reconocimiento de carga asumida a los efectos de la imputación de los costes al cupo derivado del Convenio Económico entre Navarra y el Estado, todo ello en el marco del proceso de transferencias de servicios y de las funciones de la Junta de Transferencias.

**3. Parlamentu honek Foruzaingoaren eskumen eta eginkizunei buruz hartutako erabakiaren arabera, Antolamenduari eta Eginkizunei buruko Plana berriz landuko da eta, bertan, Gobernuak bidalitakoan aurreikusitako gaiak ez ezik, Foruzaingoa zabaltzeko eta Estatuko Segurtasun eta Indar Kidegoek atzera egiteko egutegia eta horri dagokion banaketa geografikoa ere txertatuko dira. Horrekin guztiarekin batera, Foruzaingoa zabaltzen den hein berean, Estatuko Segurtasun Indarrek atzera egin beharko dute, eta horren balioespen ekonomikoa eta ondorioak Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bitartez eginez."**

3.ª De acuerdo con la determinación de este Parlamento en relación con las competencias y Funciones de la Policía Foral, se procederá a la reelaboración del Plan de Organización y Funciones en el **que se incluirán**, además de las materias ya previstas en el remitido por el Gobierno, **el calendario y distribución geográfica del correspondiente despliegue de Policía Foral y repliegue de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado. Ello deberá paralelamente ir produciendo, en la misma proporción que la Policía Foral sea desplegada, el repliegue de las Fuerzas de Seguridad del Estado**, con la valoración económica y repercusión correspondiente a través del cupo a pagar al Estado."

**Nafarroako Parlamentuak Foruzaingoaren eredua zehaztu beharko du, betiere eredu hori izanik segurtasun-zerbitzua emateko era edo poliziaren lan egiteko modua; halaber, Poliziaren beraren eta herritarren artean dagoen interakzio-maila ere zehaztu beharko da eredu horretan, segurtasun publikoan hobekuntzak lortzearren eta, horren ondorioz, herritarren eskubideen, askatasunen eta bizi-kalitatearen defentsan**

El Parlamento de Navarra deberá definir un modelo de Policía Foral, entendido el modelo como la forma de prestar el servicio de seguridad o de trabajo policial, así como el grado de interacción existente entre la propia Policía y la ciudadanía en dicho modelo a efectos de conseguir mejoras en la seguridad pública y, por consiguiente, mejoras en la defensa de los derechos, libertades y calidad de vida de los ciudadanos, eliminando, reducien-

**hobekuntzak lortzearren, segurtasunik eza, beldurra edo mesfidantza eragiten duten faktore eta gertakariak ezabatuta, murriztuta edo minimizatuta.**

**Horregatik, Udal honek honako hau erabaki du:**

**Lehena.- Nafarroako Foruzaingoa gure komunitateko erreferentziako poliziatzat hartzea, segurtasun publikoko eskumenak eraginkortasunez eta efizientziaz betetzeko gai den polizia integrala izanik.**

**Bigarrena.- Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari eskatzea izapidetzen ari den Foruzaingoaren Plan Zuzentzailean Hirugarren eszenatokiaren alde egitea aurreikusitakoen artetik; hain zuzen ere, Esklusibotasuneko Polizia Ereduaren alde, Estatuak eskualda ditzakeen Trafiko eta Bide-segurtasuneko, Herritarren Segurtasuneko eta Ingurumeneko eskumen guztiak hartu eta baliatzeko. Eta Estatuarekin egin beharreko negoziazioa egingo da, beharrezkoak diren foruzainen plantilla garatzeko, betiere garapen eta zabalkuntza hori gertatzearekin batera Estatuko segurtasun-indarrek, aldi berean, eginkizun eta eskumen horiek berak betetzeari utzita.**

**Hirugarrena.- Esklusibotasuneko Polizia Eredua izango da Nafarroako Gobernuak epe ertainean bete beharreko helburua, arian-arian eta aurrekontuko baliabideen arabera. Nolanahi ere, esklusibotasuneko eredu horren kostua Ekonomia Itunaren negoziazioan aztertu beharko da, Estatuak onartu behar baitu eta txertatu behar baitu kostu hori Nafarroak bere gain hartzen duen kargatzat, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Ekonomia Itunaren ondoriozko ekarpena kalkulatzeko garaian.**

do o minimizando los factores y hechos que generan inseguridad, miedo o desconfianza.

Por todo ello, este Ayuntamiento acuerda:

**Primero.-** Considerar que la Policía Foral de Navarra debe de ser la policía de referencia de nuestra comunidad constituyendo una auténtica policía integral capaz de prestar con eficacia y eficiencia las competencias de seguridad pública.

**Segundo.-** Solicitar al Gobierno de Navarra y al Parlamento de Navarra que en el Plan Director de la Policía Foral que se está tramitando se haga una clara apuesta por el Tercer escenario de los previstos, el denominado **Modelo Policial de Exclusividad**, en el que se contempla la asunción y ejercicio de todas las competencias transferibles por parte del Estado en materia de Tráfico y Seguridad Vial, Seguridad Ciudadana y Medio Ambiente, procediéndose a la negociación que sea precisa con el Estado para que se desarrolle la plantilla de policías que se precisen, de forma que en la medida que se produzca ese desarrollo y despliegue las fuerzas de seguridad del Estado dejen, paralelamente, de prestar esas mismas funciones y competencias.

**Tercero.-** El Modelo Policial de exclusividad será el objetivo a alcanzar a medio plazo por el Gobierno de Navarra, de manera progresiva y de acuerdo con las disponibilidades presupuestarias. En cualquier caso, el coste de este modelo de exclusividad deberá de ser contemplado en la negociación del Convenio Económico de forma que el mismo se integre y sea reconocido por el Estado como una carga asumida por Navarra para el cálculo de la aportación derivada del Convenio Económico entre Navarra y el Estado,

**Laugarrena.- Guk defendatzen dugun polizia-ereduan, Nafarroako Foruzaingoak honelakoa izan beharko luke:**

**- Polizia demokratikoa, egiten dituen jardun, kudeaketa-lan eta emaitzen berri Gobernuari ez ezik –polizia zuzentzen duen aldetik–, herritarrei ere emanez –herritarren zerbitzura dagoen aldetik–.**
**- Giza eskubide guztiak errespetatuko dituen polizia, funtzionamendua arautuko duen Lege eta guzti, eta Poliziaren Jokabideari eta Etikari buruzko Deontologia Kodea ere baduena, honako hauetan oinarrituta: Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Poliziarentzako Giza Eskubideei buruzko Araudi eta Jardunbidean, eta Europako Kontseiluak gomendatutako Poliziaren Etikaren Europako Kodean.**
**- Gertuko polizia herritarrentzat, bi inguruneen ezagutza sakonean oinarrituta jarduten duena, gaitasun analitiko handiaren bitartez.**
**- Elkarreragiten duen polizia, bai herritarrekin, bai elkarteekin, bai erakunde publiko nahiz pribatuekin, eta bai herritarren ongizateaz eta segurtasunaz arduratzen diren beste erakunde batzuekin, Segurtasun Publikoari buruzko Foru Legearen esparruan plan taktiko eta estrategikoak eginda.**
**- Berezko eta Gobernuaren barne-kontroleko mekanismoei ez ezik, Poliziari buruzko Foru Legean aurreikusi beharreko Kanpo Batzorde Independenteari ere atxikita jardun behar duen polizia.**
**- Prestakuntza teknikoa, humanistikoa, polizia-eginkizunak betetzeko profesionaltasuna eta kide guztien garapen pertsonala eta profesionala baldintza eta aukera berdinetan etengabe eta modu iraunkorrean sustatuko dituen polizia.**
**- Nafarroan ofizialak diren bi hizkuntzetan jarduteko gai den polizia.**

**Bosgarrena.- Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departa-**

**Cuarto.-** Defendemos un modelo policial en el que la Policía Foral de Navarra debiera de ser:

- **Una Policía de carácter democrático que rinda cuentas** de sus actuaciones, gestión y resultados tanto al Gobierno que la dirige como a la ciudadanía a la que presta servicio.
- **Una Policía, respetuosa con todos los derechos humanos** y dotada de una Ley que regule su funcionamiento e incorpore un Código Deontológico de Conducta y de Ética Policial basados en la Normativa y Práctica de los Derechos Humanos para la Policía del Alto Comisionado de la ONU para los Derechos Humanos y en el Código Europeo de Ética de la Policía recomendado por el Consejo de Europa.
- **Una Policía de proximidad** a la ciudadanía que orienta su actuación en base a un profundo conocimiento de los entornos de ambos mediante una alta capacidad analítica.
- **Una Policía que interactúa** tanto con la ciudadanía, asociaciones, entes públicos y privados y otras Instituciones responsables del bienestar y seguridad de la misma mediante la elaboración de planes tácticos y estratégicos en el marco de una Ley Foral de Seguridad Publica.
- **Una Policía sujeta en sus actuaciones** tanto a sus mecanismos propios de control interno y del **Gobierno** como a una **Comisión Externa Independiente** a contemplar en una Ley Foral de Policía.
- **Una Policía que fomente de manera constante y continua** la formación técnica, humanística, así como la profesionalidad en las funciones policiales y el desarrollo personal y profesional de todos sus miembros en igualdad de condiciones y oportunidades
- Una Policía competente en los dos idiomas que tienen reconocimiento oficial en Navarra.

Quinto.- El presente acuerdo será remitido al Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra

**mentura eta Nafarroako Parlamentura helaraziko da.**

y al Parlamento de Navarra.

**5.- 2017KO AURREKONTUAN UDAL OHIKO KANPOKO KREDITUA HABILITATZEKO ESPEDIENTEA HASIERA BATEZ ONESTEA (2017/2)**

5.- EXPEDIENTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO EXTRAORDINARIO EN EL PRESUPUESTO 2017, APROBACIÓN INICIAL (2/2017).

***Alkateak azaldu du 2017-2019ko PILen sartutako obrak finantzatzeko aldaketa hauek egin behar direla eta Idazkariak prozedura aipatu du.***

*El Alcalde señala que estas modificaciones hay que hacer para financiar las obras incluidas en el PIL 2017-2019 y la Secretaria explica el procedimiento.*

**Ikusirik, Kontu-hartzaileak 2017ko uztailaren 5ean egindako txostena, non 2017rako onartu den aurrekontuan zenbat inbertsio 2017an gauzatzeko, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planekoak, kontu-sailik ez dagoela, beraz, kredituak habilitatzeko espedientea onetsi behar dela adierazi duen.**

Visto informe emitido por la Interventora de fecha 5 de julio de 2017 en el que manifiesta que no hay partida presupuestaria en el presupuesto aprobado del año 2017 para diversas inversiones a llevar a cabo en el 2017, las del Plan de Inversiones Locales 2017-2019 por lo que es preciso la aprobación de un expediente de modificación de créditos.

**Kontuan hartuz, aipatu txostenean ohi kanpoko kreditua izapidetu behar dela eta 2016ko Diruzaintzako Gerakin Garbiaren kargura finantzatzeko proposatu duela.**

Teniendo en cuenta que en el citado informe señala que debe tramitarse un crédito extraordinario y propone su financiación con cargo al Remanente Líquido de Tesorería del 2016.

**Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 202., 212., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen aurrekontuaren 9. eta 10. Exekuzio-oinarriei jarraikiz.**

De acuerdo con lo establecido en los artículos 202, 212, 213 y 214 de la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra y en las bases de ejecución 9ª y 10ª del presupuesto en vigor

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

1) **2017ko uztailaren 5ean Kontu-hartzaileak egindako txostenean agertzen den ohi kanpoko kredituaren gaikuntza (2017/2) hasiera batez onestea.**

1) Aprobar inicialmente el crédito extraordinario (2/2017) que consta en el informe de Intervención de 5 de julio de 2017.

2) **Aipatu espedientean (2017/2), Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aldez aurretik iragarrita, 15 laneguneko epean jendaurrean egotea he-**

2) Exponer dicho expediente (2/2017) en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios, a

**rritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**

fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

3) **Lehen aipatutako jendaurreko epea iragan ondoren erreklamaziorik ez balego, espediente hau behin betiko onetsitzat hartuko dela ohartaraztea.**

3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el expediente se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

**6.- ALTSASUKO ATXILOTUENTZAT NEURRIZ KANPOKO ZIGOR ESKAERAK.**

6.- PETICIÓN DE PENAS EXAGERADAS PARA LOS DETENIDOS DE ALTSASU.

***Juan Losak Alkateak mozioa irakurri baino lehen puntu hau erretiratzea eskatu du aurreko mozioaren ondotik Udala neutroa izan behar dela argudiatuz.***

*Juan Losa, antes de leer la moción el Alcalde, pide la retirada de este punto ya que después de la moción anterior el Ayuntamiento debe ser neutro.*

***German Castillok galdetu dio ea irakurri duen, berak ez baitio deus ere arrarorik ikusten, egin esanda.***

*Germán Castillo le pregunta si la ha leído porque él no le ve nada raro, sinceramente.*

***Josu Iratzoki Alkateak:***
***Altsasun gertatu zena Altzateko bestetan gerta zitekeen.***

*El Alcalde Josu Iratzoki:*
*Lo que sucedió en Altsasu podía haber ocurrido en fiestas de Altzate.*

***Segidan, Alkateak mozioa irakurri du.***

*Seguidamente, el Alcalde lee la moción.*

***Horren ondoren, German Castillo eta Jose M. Gorria ados agertu dira.***

*Tras ello, Germán Castillo y José M. Gorria muestran su conformidad.*

***Juan Losak:***
***Aurkako botoa emanen du. Bada garaia, Berako Udalak erasoa jasan zuten biktimeekin elkartasuna izateko, ezin dira onartu holako portaerak ez ezkertiarren aldetik zein ezkuindarren aldetik zein hiritar arrunten aldetik, Berako mugimendu feministek ere ez dute elkartasunik adierazi erasotutako emakumeekin.***

*Juan Losa:*
*Votará en contra. Ya es hora de que el Ayuntamiento de Bera se solidarice con las víctimas que sufrieron la agresión, este tipo de comportamiento no se pueden tolerar ni de la izquierda, ni de la derecha ni de ciudadanos de a pie, los movimientos feministas de Bera tampoco se han solidarizado con las mujeres agredidas.*

***Bozketa egin dute eta hauxe izan da emaitza:***
***Aldeko botoak: 6 (4 EH Bildu, 2 Herrirako).***
***Aurkako botoak: 1 (UPN).***

*Realizada la votación, resulta lo siguiente:*
*Votos a favor: 6 (4 EH Bildu, 2 Herrirako).*
*Votos en contra: 1 (UPN).*

***Beraz, mozioa onartu dute honako testua izanik:***

*Por lo que aprueban la moción, siendo el texto el siguiente:*

**Joan zen urriaren 15ean Altsasuko taberna batean gertatutako egitateen aurrean, non bi guardia zibil eta haien bikoteak zauritu ziren, zein gertaera hauetatik eratorri diren ondorioak ikusirik, BERAko Udalak bakearekiko eta elkarbizitzarekiko bere konpromezua berresten du eta erabateko desadostasuna agertzen du aztertutako egitateak terrorismotzat kalifikatzearekin, gazte auzipetuei neurrigabeko zigorrak ekarri baidiezaizkieke.**

A raíz de los hechos acaecidos en la madrugada del pasado 15 de octubre en un bar de la localidad de Alsasua, en los que resultaron heridos dos guardias civiles y sus parejas, así como las consecuencias derivadas de los mismos, el Ayuntamiento de BERA se reafirma en su compromiso por la paz y la convivencia, así como el desacuerdo con la calificación penal de los hechos investigados como delito de terrorismo, que podrían acarrear penas desproporcionadas a los jóvenes encausados.

**Hilabete hauetan zehar, makina bat izan dira Euskal Herrian osoan izan diren elkarretaratze, manifestazio eta mota guztietako ekitaldiak zeinetan pertsona, eragile zein instituzioek auzi honen baitan ematen ari den izugarrizko proportzionaltasun eza salatu dute.**

A lo largo de estos meses han sido numerosas las manifestaciones, concentraciones y actos de diversa índole en los cuales personas, entidades e instituciones de todo tipo y condición han denunciado la flagrante falta de proporcionalidad que estaba presidiendo todo lo acontecido en torno a este caso.

**Epealdi honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako instituzio nagusiek, tartean Nafarroako Parlamentuak zein Eusko Legebiltzarrak argi esan dute gertatuak ezin direla terrorismo ekintzatzat kalifikatu, kode penalaren 573. aritikuluarenpean, eta ondorioz Nafarroan instruitu eta epaitu beharko litzatekela.**

Durante este tiempo las principales instituciones de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa, entre ellas el Parlamento de Navarra y el Parlamento Vasco, han considerado que no cabe concluir que los hechos denunciados puedan considerarse susceptibles de ser calificados como acto de terrorismo de acuerdo al artículo 573 del Código Penal y que, en consecuencia, debían ser instruidos y juzgados en Navarra.

**Orain gutxi ere, Madrileko Gorte Orokorretako 74 diputatu zein senatarik, Europako Parlamentuko 52 diputatuk eta Hego Euskal Herriko 83 alkatek auziarengatik euren kezka agertu dute.**

Recientemente también un total de 74 diputados/as y senadores/as de las Cortes Generales, 52 parlamentarios y parlamentarias del Parlamento Europeo y 83 alcaldes y alcaldesas de Ayuntamientos de Hego Euskal Herria han manifestado su preocupación por este caso.

**2017ko uztailaren 4ean jakin da zein eskaera egin duen Estatuko Fiskaltzak auzipetutako gazteentzako, 62 urte eta 6 hilabeteko eskaera gazteetako batentzat, 50 urte sei gazteentzat eta 12 urte eta 6 hilabete zortzigarrenarentzat. Zuzenbidezko Estatu ba-**

El 4 de julio de 2017 se conoció el escrito de acusación de la Fiscalía, en el que ésta solicita la imposición de una pena de 62 años y 6 meses para una de las personas encausadas, 50 años para seis de ellas y 12 años 6 meses para una octava persona. Una verdadera despropor-

**tean onartezina litzatekeen neurrigabekeria.**

ción que no debiera asumir un Estado de Derecho.

**Guzti honengatik BERAko Udaleko Osoko Bilkurak honakoa onartzen du:**

Por todo ello el Pleno del Ayuntamiento de BERA aprueba la siguiente

**ERAKUNDE-ADIERAZPENA**

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

**1.- BERAko Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.**

1.- El Ayuntamiento de BERA manifiesta su más rotunda discrepancia con la petición de penas que recoge el escrito de acusación de la Fiscalía y manifiesta una gran preocupación por el devenir de los acontecimientos, habiendo constatado que este caso ha llegado a un nivel de desproporción y sinrazón inaceptables.

**2.- BERAko Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.**

2.- El Ayuntamiento de BERA reitera su firme compromiso con la convivencia, la justicia y el respeto a los derechos humanos de todas las personas como principios propios de un Estado democrático de Derecho y manifiesta que la desproporción que rodea a este caso se enmarca en la dirección contraria a la normalidad y convivencia democrática.

**3.- BERAko Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeko epaitegiena izan behar lukeela.**

3.- El Ayuntamiento de BERA reitera su apoyo a la motivación de la Audiencia Provincial de Navarra respecto de la no concurrencia de indicios para que los hechos sean calificados como terrorismo, y por tanto se reafirma en que la competencia para instruir y juzgar los hechos sucedidos en Altsasu el pasado 15 de octubre debiera corresponder a los juzgados de Pamplona.

**7.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

7.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

**1) Bandoak: B14/2017tik B16/2017era.**

**2) Ebazpenak: 2017ko ekainaren 8ko 118. ebazpenetik 2017ko uztailaren 6ko 130.era arte.**

1) Bandos: del B14/2017 al B16/2017.

2) Resoluciones: De la resolución nº 118 de 8 de junio de 2017 a la nº 130 de 6 de julio de 2017.

**8.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:35etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:35 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta